# AGINTARIAK ETA LANGILERIA

## Oposaketak eta lehiaketak

### EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

## 3529

*AGINDUA, 2014ko uztailaren 11koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailean hutsik dagoen lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdia bete gabe ebazten duena.*

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 46.3.c) artikuluan agindutakoaren arabera eta Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailean hutsik dagoen lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdia egin zuen Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun sailburuaren 2014ko ekainaren 5eko Aginduaren hirugarren oinarrian agindutakoarekin bat etorriz (2014ko ekainaren 18ko EHAA), hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Bete gabe uztea Merkataritza eta Turismo Sailordetzako goi-kargudunaren idazkari lanpostua (kodea: 520010, dotazioa: 103; destino-osagarriaren maila: 18, berariazko osagarria: VI -A).

Bigarrena.– Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari. Beraz, beraren aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke agindua eman zuen organoari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko uztailaren 11.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.